




Esportazioak %15,5 handitu ziren otsailean

EAEko ekonomiaren esportazioak

Urte bakoitzeko otsaila. Milioi euro



Iturria: Eustat.


Atzerrira bidalitako ondasunen esportazioak %15,5 areagotu ziren iaizko hileko berarekin alderatuta.

Balio absolutuetan, kopurua 3.000 milioi euro ingurukoa izan zen, eta, beraz, beste errekor bat lortu zen otsail batean, aurreko hilabeteetan ere gertatu den bezala.

Industriaren prezioek apaltze nabarmena izan dute

Industriaren prezioak Euskadin

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.


EAEko industria prezioek %0,7ko aldakuntza tasa izan zuten martxoan, aurreko hileko balioa baino zazpi puntu eta zortzi hamarren txikiagoa. Aldakuntza tasa hori 2021eko otsailetik lortutako txikiena izan zen, eta batez ere energia-aren prezioek eragin zuten, %16,5 merkatu baitziren.



Hoteletako gaualdiek gora egin zuten berriro

Hoteletan igarotako gaualdiak

Urte bakoitzeko martxoa. Mila




Iturria: Eustat.

Martxoan ia 500.000 gaualdi erre-gistratu ziren hotel establezimen-duetan, martxo batean serie historiko osoan orain arte lortu ez den kopurua baita. Zehazki, hilabete horretan gaualdien igoera %23,0 izan zen, eta 2021aren hastapenean hasi zen hazkunde kate bat luza-tzen du.

Zerbitzuek datu onak jaso zituzten otsailean

Zerbitzuetako negozio zifra

Urte bakoitzeko otsaila. Indizea



Iturria: INE.

Zerbitzuen sektoreko negozio zi-frac otsail honetan jaso zuen erre-gistrorik handiena. Balio hori urte arteko tasari esker lortu zen; bi digi-tuetatik jaitsi bazen ere, igoera na-barmena izan zuen, %9,1, alegia. Bestalde, enpleguak bilakaera onare-kin jarraitu zuen, %1,6 igo baitzen aurreko aldiko hil beraren aldean.